

IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA

AURKIBIDEA	ORRIALDEA
1.- Sarrera	4
2.- Helburuak	6
3.- Aplikazio-eremua	7
4.- Iruzurraren aurkako plana	8
5.- Interes-gatazka	10
5.1.- Definizioa	10
5.2.- Udal-araudia	11
5.3.- Sailkapena	13
5.4.- Hartu beharreko neurriak	13
5.4.1.- Prebentzio-neurriak	13
5.4.2.- Interes-gatazkei aurre egiteko neurriak	14
5.5.- Ondorioak	15
6.- Oparien eta balizko onuren politika	15
7.- Iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako prebentzio- eta borroka-neurriak	16
7.1.- Hurbilketa kontzeptuala	16
7.2.- Prebentzioa, detekzioa eta zuzenketa: iruzurraren aurkako zikloa	17
8.- Arriskuen ebaluazioa	20
9.- Iruzurraren aurkako Batzordea	20
10.- Estatuko laguntzak eta kolusio-arriskua	22
11.- Iruzurraren aurkako postontzia	22
11.1.- Sarrera	22
11.2.- Helburuak	23
11.3.- Jarduketa-eremua	24
11.4.- Funtzionamendua	24
11.5.- Komunikazioen jarraipena	25
11.6.- Konfidentziasun-bermea	25
11.7.- Salatzaileren eskubideak	26
12.- Prestakuntza eta kontzientziazioa	26

13.- Datu pertsonalak babestea	26
14.- Plana berrikustea eta eguneratzea	27
15.- Iruzuraren aurkako Neurrien Plana argitaratzea	27

ERANSKINAK

1. eranskina.- Iruzuraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzionala	29
2. eranskina.- Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA)	32
3. eranskina.- Autoebaluazio-testa	34
4. eranskina.- Iruzuraren aurkako Batzordearen erregelamendua	36
5. eranskina.- Adierazleen katalogoa (bandera gorriak)	41
6. eranskina.- Estatuko laguntzen araubidearen bateragarritasun-testa eta finantzaketa bikoitza saihestea	52
7. eranskina.- Arriskuen mapa	55

1. SARRERA

Ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioak (New York, 2003/10/31) agerian utzi zuen ustelkeria tokiko arazo izateari utzi eta gizarte eta ekonomia guztiei eragiten dien fenomeno bihurtu zela, eta, ondorioz, nazioarteko lankidetzaren funtsezkoa dela bai hura prebenitzeko bai haren aurka borrokatzeko. Era berean, adierazi zuen ustelkeria gizartearen egonkortasunerako eta segurtasunerako arazoak eta mehatxuak sortzen dituen fenomeno dela, demokraziaren, etikaren eta justiziaren erakundeak eta balioak ahultzen dituelako eta legearen garapen jasangarria eta inperioa kolokan jartzen dituelako.

Horren guztiaren ondorioz, estatuak neurriak eta tresnak ezarri behar dituzte iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko eta haien aurka borrokatzeko, bai eta gai eta ondasun publikoen osotasuna, kontuak emateko betebeharra eta kudeaketa egokia sustatzeko ere.

Kontuan izanik zerbitzu publikoak direla, erakunde publikoen eginkizuna interes orokorra lortzea da, dagozkien eskumen-eremuetan betiere. Hori dela eta, berebiziko garrantzia du osotasun publikoaren kultura praktikatzeko antolakundearen maila guztietan. Eta, horretarako, behar-beharrezkoa da osotasun-eremu nagusiak izatea: osotasun-planak, kode etikoak, komunikazio eta salaketarako bideak eta prestakuntza-praktikak. Horien guztien helburua interes orokorraren aurkako praktikek eragindako arriskuak eta irregulartasunak (bai penalak bai administratiboak) minimizatzea da, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenituta eta detektatuta, eta halakoak zuzentzeko neurriak hartuta.

Aurreko guztiaz gain, nabarmendu behar da Europar Batasuna etengabe eta gero eta hein handiagoan dagoela kezkatuta estatu kideek aurrekontuko funtsak kudeatzen dituzten moduekin.

2020ko uztailaren 21ean, Europar Kontseiluak Next Generation EU programa sortzea onartu zuen, COVID-19aren pandemiak eragindako kalteak konpontzeko eta susperraldi ekonomikoa bultzatzeko asmoz. Funts horien bidez, Europar Batasuna ekologikoagoa eta digitalagoa ez ezik, etorkizuneko aldaketen eta erronken aurrean erresilienteagoa ere izatea lortu nahi da.

Programak bi finantza-tresna ditu:

- Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM): funtsen zati nagusia da, eta berrikuntza eta inbertsio publikoak egitera bideratua dago.
- Europako Kohesioa eta Lurraldeak Suspertzeko Laguntza (REACT-UE): krisiari erantzuteko eta hura konpontzeko neurriak ezartzen eta zabalitzen ditu. Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (EGEF), Europako Gizarte Funtsaren (EGF) eta Pertsona behartsuenentzako Europako Laguntza Funtsaren (BELF) bidez gauzatzen da laguntza hori.

EBko Kontseiluak 2021eko uztailaren 13an onartutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak (SEEP) egingo diren inbertsio guztiak biltzen ditu, baita aurreikusitako egiturazko eta legegintzako erreformen programa ere.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen, eta, finantza-kudeaketa onaren printzipioarekin bat etorritik, estatu kideak behartzen ditu aurkezten dituzten suspertze-, eraldatze- eta erresilientzia-planetan EBren finantza-interesak babesteko neurri egokiak aurreikusten dituen sistema bat sartzera. Sistemak, halaber, aukera eman behar du emandako funtsen erabilerarekin lotutako interes-gatazkak, ustelkeria eta iruzurra prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko.

Manu hori betetz, 2021eko irailaren 30ean (BOE, 234. zk.), Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua argitaratu zen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema ezartzen duena. Agindu horren arabera, SEEPko neurriak gauzatzen dituzten erakundeek, nola erabakitzaileek hala betearazleek, iruzurraren aurkako neurrien plana izan behar dute, aukera izan dezaten, euren jarduketa-eremuan, funtsak neurri aplikagarrien arabera erabili direla bermatzeko eta aitortzeko, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokienez. Hori horrela, Aginduak II.B.5 eranskinean zehazten du gutxienez zer estandar bete behar den iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazka prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzeari dagokionez. Hala ere, irekita uzten du organo arduradun eta kudeatzaileek gutxienerako estandar hori zabaltzeko aukera. Agintaritza arduradunak (Europako Funtsen Idazkaritza Nagusia) eguneratu ahal izango du, eta, horretarako, aginduaren eranskinen edukia berritu beharko du. Zehazki, III.C eranskinak («Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazka prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurriak») dauka printzipio horren gaineko neurri orientagarriak emateko ardura, erakundearen ezaugarri eta arrisku espezifikoaren arabera neurri gehigarriei kalterik egin gabe.

Komeni da zehaztea SEEP betearazten dutenek zorrotz bete beharko dituztela Espainiako eta Europako araudiek gai horri buruz ezarritakoa, bai eta Europar Batasuneko erakundeek Europar Batasuneko finantza-interesak babesteari buruz hartu dituzten edo har ditzaketen erabakiak ere. Gainera, ez dute ahaztu behar Aginduaren 6.2 artikulua ezartzen duena, alegia, aplikagarriak direla bai 2017/1371 (EB) Zuzentarauan –Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzkoan– bai Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB) Erregelamenduan –Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikagarri zaizkion finantza-arauei buruzkoan (EBko Finantza Erregelamendua)– jasotako iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazkari buruzko definizioak. Kontzeptu horiek arau-hauste penalak dakartzate berekin, bereziki, nahita egiten direnean, eta kontuan hartu behar da irregulartasun bat egoteak ez duela beti esan nahi iruzurra dagoela; izan ere, nahitasuna beharrezkoa ez den arren, iruzurraren funtsezko

elementua da. Aginduaren III.C artikulua, era berean, definizio horietako batzuk jasotzen ditu, hala nola interes-gatazkaren kontzeptuari eta motei dagozkienak.

Baina osotasun publikoko plan bat onartzea eta argitaratzea ez da nahikoa. Planaren garrantziaz jabetu beharra dago, eta erakundearen maila guztietan praktikan jarri. Prozesu horrek dedikazioa, ahalegina eta etengabeko hobekuntzako jarduerak eskatuko ditu, baina, zalantzarik gabe, oso positiboa izango da kargu hautetsientzat, zuzendari publikoentzat, enplegatutako publikoentzat eta herritarrentzat, oro har.

Jokoan dago sare publikoa eta indarrean dagoen arau-esparruan garatutako printzipioak behar bezala administratzea. Esparru horretan, gaur egun, horrelakotzat tipifikatu dira plangintzari, helburuen araberrako zuzendaritzari eta kudeaketaren kontrolari dagozkien printzipioak, bai eta politika eta zerbitzu publikoen emaitzen ebaluazioari eta helburuak betetzeko eraginkortasunari dagozkionak ere.

Bilboko Udalak (aurrerantzean, Udala edo Erakundea) adierazi du ez dituela inola ere onartuko iruzurtzat, ustelkeriatzat edo eroskeriatzat har daitezkeen jokabideak, nola eremu publikoan hala pribatuan, eta iruzur eta ustelkeria mota ororen aurka borrokatzeko konpromisoa ez ezik, hori lortzeko politika zehatzak egiteko konpromisoa ere hartu du.

Horregatik guztiatik, Iruzuraren aurkako Plan hau onartu da, zeina iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako araudi-erreferentzia nagusiekin eta jardunbide egokiarekin bat etorri egin baita.

2. HELBURUAK

Plan honen helburu nagusia da iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko jarraibideak zehaztea, bat etorri Udalak bere gain hartutako jokabide-jarraibideekin eta printzipioekin. Horiek guztiak 2015eko azaroaren 24ko ohiko bilkuran Udalbatza Txit Gorenak onartutako *Bilboko Udalaren jokabideari, gobernu onari eta kalitate instituzionalarekiko konpromisoari buruzko kodean* daude araututa.

Ustelkeriaren aurkako erantzun estrategiko eta jasangarria osotasun publikoa da. Osotasuna egitura politiko, ekonomiko eta sozialen funtsezko alderdietako bat da, eta, beraz, ezinbestekoa da ongizate ekonomiko eta sozialerako, bai eta gizabanakoen eta gizarte guztien oparotasunerako ere. Eroskeria-egintza batez haratago, ustelkeriak duen konplexutasun osoa hartu behar da aintzat. Influentzia-trafikoa, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, isilpeko informazioa erabiltzea eta nagusikeria dira, besteak beste, delitu kaltegarrienak gizartearentzat.

Gardentasuna ez da nahikoa. Informazioa jendearen eskura jartzea ez da nahikoa; horrekin batera, botoak zenbatzeko eta kontuak emateko mekanismo eraginkorrak jarri behar dira.

Beharrezkoa da erakundeen erantzukizunak argitzea, osotasun publikoaren sistemaren eraginkortasuna indartzeko. Horretarako, zera egingo da:

- a) Osotasun-sistemaren elementuak diseinatzeko, zuzentzeko eta inplementatzeko erantzukizun zehatzak ezarri.
- b) Osotasun publikoko sistemaren elementuak gauzatzeko, ezartzeko, aplikatzeko eta/edo gainbegiratzeko erantzukizun nagusia duten funtzionario, erakunde eta organismo publiko guztiek beren jurisdikzioaren barruan beren erantzukizunak betetzeko behar diren eskuduntzak eta gaitasunak dituztela bermatu.

Jokabide-arau zorrotzak ezarri behar dira funtzionario publikoentzat, eta, zehazki, lehentasuna eman behar zaie interes orokorrari, zerbitzu publikoaren balioekin bat egiteari eta gardentasunaren kulturari, betiere antolaketa-ikaskuntza erraztu eta saritzen badu eta gobernantza ona sustatzen badu.

Funtsezkoa da gardentasunaren antolaketa-kultura izatea, arau eta prozedura argiak ematen baititu osotasun-arauak hausteari buruzko susmoak salatzeko, eta bermatu egiten baitu, barne-zuzenbidearen funtsezko printzipioen arabera, legezko babes eta, praktikan, fede onez eta arrazoiz egindako salaketen ondoriozko tratu bidegabe ooren aurkako babes.

Era berean, garrantzitsua da arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko esparru bat ezartzea, osotasuna babesteko, kontrolaren arloko gabeziei heltzeko eta arriskuak kudeatzeko sistemaren kalitatea gainbegiratu eta kontrolatuko duen mekanismo eraginkor bat inplementatzeko.

3. APLIKAZIO-EREMUA

Iruzuraren aurkako Neurrien Plan hau eta hura osatzen duten politikak eta prozedurak nahitaez bete behar dituzte Bilboko Udaleko kide guztiek.

Bereziki, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren proiektu eta jardueren esparruan kudeaketa-, jarraipen-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituztenei aplikatzen zaie, plan horren erakunde betearazlea Bilboko Udala baita.

Era berean, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik datozen funts publikoak jasotzen dituzten edo horiekin jarduketak finantzatzen dituzten erakunde eta pertsona onuradun pribatuei, bazkideei, kontratistei eta azpikontratistei aplikatuko zaizkie Planaren neurriak, aintzat hartuta bakoitzari dagokion derrigortasun-maila.

Ez-betetzeak Udalaren barne-araudiaren eta aplikatu beharreko lege-araudiaren arabera zehatuko dira.

Bestalde, udal-erakundeari eta haren erakunde autonomoi, enpresa-entitate publikoei, sozietate publikoei eta mendeko fundazioei ere aplikatuko zaie Bilboko Udalaren Iruzurraren aurkako Neurrien Plana. Planaren aplikazioari dagokionez, udal-erakundeak bere kapital edo funts sozialaren % 50etik gorako partaidetza badu erakunde publiko edo pribatu batean, mendeko erakundetzat hartuko da.

4. IRUZURRAREN AURKAKO PLANA

Udalak konpromisoa hartzen du neurri egokiak hartzeko, bere jardueren eremuan iruzur, ustelkeria edo eroskeria ekintzak egiteko aukerak ahalik eta gehien murrizten direla bermatzeko. Osotasunaren, gardentasunaren, objektibotasunaren eta inpartzialtasunaren printzipioak izango dira nagusi Udalaren kudeaketan, eta, ondorioz, jokabide horiek prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazaritzeko mekanismo eta politika espezifikoak lantzeko konpromisoa hartzen du.

Politika honen helburua da Udalaren iruzurraren aurkako neurriak modu proportzionatuan egituratzea, iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementuen inguruan: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

Hona hemen Planaren ardatz nagusiak:

- Planaren jarraipenaz arduratuko diren pertsonak zehaztea.
- Langile guztien eta erabakiak hartzeko organoen aldizkako prestakuntza eta sensibilizazioa ezartzea.
- Eredu bat ez ezik, salaketak egiteko bidearen kudeaketarekin lotutako prozesuak ere arautzea.
- Agertzen diren arriskuei aurre egiteko protokolo kontingente bat egitea.
- Interes-gatazkak identifikatzera, detektatzera eta kudeatzera bideratutako kode etikoa prestatzea.
- Ez-betetzeak detektatzeko mekanismoak zehaztea eta arrisku-adierazleak ezartzea alerta gorrietatik abiatuta (*red flags*).
- Arriskuak ebaluatzeko tresna egokiak aukeratzea, erakundearen praktika-eremu nagusietan arriskuak autodiagnostikatu ondoren, kalteberatasun-maila zehazteko, arriskuak gauzatzeko probabilitatea murrizteko eta, hala gertatzen denean, eragina minimizatzeke.
- Erakundeen osotasunaren sistema etengabe hobetzea, aldizka eta helburuak lehenesteko mekanismo malguekin.
- Dilema etikoen eta kontsulten inguruan orientatzea.

Udalak konpromisoa hartzen du arrisku penalak izateko aukerak dituzten jarduerak identifikatzeko, eta, zehazki, iruzurrarekin, ustelkeriarekin eta eroskeriarekin lotutako arriskuak.

Udalak iruzurraren arriskua, eragina eta probabilitatea ebaluatuko du, eta aldizka berrikusiko. Nolanahi ere, berrikusi egingo du iruzur-kasuren bat detektatu denean, dela Udalean bertan dela beste udal batzuetan izandako iruzur-kasuen berri duenean, baldin eta iruzur horiek udaletxean ere gertatzerik badute edo araudian, prozeduretan edo kudeatzaileetan aldaketa nabarmenak egiten badira. Ebaluazio-prozesu horretan, iruzurraren, ustelkeriaren eta eroskeriaren arriskuak identifikatu, aztertu eta balioetsiko dira, helburu hauekin:

- Udalak arrazoiz aurreikus ditzakeen iruzur-, ustelkeria- eta eroskeria-arriskuak identifikatzea.
- Arrisku horiekin lotutako arau-hausteen edo delituen irismena, eragina eta probabilitatea aztertzea.
- Identifikatutako arriskuak aztertzea.
- Identifikatutako arriskuak baloratzea.
- Lehendik dauden kontrolen diseinuaren eta eraginkortasunaren egokitasuna baloratzea.

Udalak bere arriskuak aztertuko ditu, arlo horretako kudeaketa-maila bakoitzean dauden erantzukizunak ezagutu ahal izateko, aurretik dauden prozeduren arabera. Ebaluazio hori hainbat iturritan oinarrituta eta Europako jardunbide egokienei jarraikiz egingo da. Horrez gain, aintzat hartuko dira bai ezarritako prozeduren eta kontrolen eraginkortasunaren egiaztapena bai aurkitutako balizko desadostasunen edo arau-hausteen detekzioa.

Arriskuak identifikatu ondoren, horiek gauzatzera bultza lezaketen benetako eta balizko kausak, arrisku bakoitzerako eragin-eremuak eta horien ondorioak zehaztuko dira, baita zer egoeratan ager litezkeen ere.

Era berean, Udalak arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko urteko plan bat onartuko du, eta identifikatuko dituen arriskuen tratamendua zehaztuko, honako hauek argi eta garbi adierazita: (i) zein den zehaztutako arriskuarekiko esposizioaren muga, (ii) arriskua sortzen duten eragileak, arrazoiak eta ondorioak, eta (iii) urteko kontrol-planaren barruan arrisku horiek prebenitzeko, detektatzeko, babesteko edo transferitzeko neurri eta kontrol egokiak.

5. INTERES-GATAZKAK

5.1.- Definizioa

Interes-gatazkak erabakiak hartzeko hainbat eremutan planteatu daitezke; maila profesionalean, erakunde pribatuetan eta publikoetan ager daitezke, baina bereziki garrantzitsuak dira zerbitzari publikoak direnean. Gizarteak gero eta gardentasun eta osotasun handiagoa eskatzen die administrazio publikoei.

Erakunde publikoak gobernu onaren eta administrazio onaren irizpideen arabera kudeatu behar dira. Erakunde publikoak behar bezala administratzea herritarren funtsezko eskubidea da. Hain zuzen ere, hori aldarrikatzen du Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunaren (2000) 41. artikulua: «*Pertsona orok du Batasuneko instituzio, organo eta organismoek beren gaiak inpartzialki eta ekitatez jorrazteko eskubidea*».

Nazioarteko esparru horretan, Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) dokumentu hau aipatu behar da: *Zerbitzu publikoan interes-gatazkak kudeatzeko gidalerroak*. Bertan, honela definitzen da interes-gatazka: «*funtzionario baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuaren arteko gatazka; funtzionarioak interes pribatuak dituzenez, bere gain eragin okerra jasanez, eta, ondorioz, bere betebeharrak eta erantzukizun ofizialen funtzionamenduari eragin*». Gidalerro horietan interes-gatazkak kudeatzeko funtsezko printzipioak adierazten dira: interes orokorraren, gardentasunaren eta kontrol publikoaren aldetik baliagarria izatea, norbanakoaren erantzukizuna sustatzea eta interes-gatazkak onartzen ez dituen kultura bat sortzea.

Europar Batasunaren esparruan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailearen 18ko 2018/1046 (EB) Erregelamenduaren –Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikagarri zaizkion finantza-arauei buruzkoaren (EBko Finantza Erregelamendua)– 61. artikulua arabera, kasu hauetan gertatzen da interes-gatazka:

«*IG dago, baldin eta aurrekontua zuzenean, zeharka eta modu partekatuan gauzatzeko zereginean parte hartzen duten finantza-eragileek eta gainerako pertsonak, baita kudeaketan ere, prestaketa-egintzak, auditoretza edo kontrola barne, beren eginkizunen erabilera inpartziala eta objektiboa konprometitu ikusten badute, arrazoi familiarak, afektiboak, kideatasun politiko edo nazionalak, interes ekonomikoak direla eta, edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoiengatik*».

Barne-araudian, sektore publikoko kontratuei dagokionez, interes-gatazkaren definizio bat jasotzen da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71.1 artikuluko g) letran, kontratatzeke debekua adierazten duenean: «*Debekuak berdin hartzen ditu, bi kasuetan, aurreko paragrafoetan aipatutako pertsonen ezkontideak, bizikidetzaren afektiboz horien antzeko lotura daukaten pertsonak, aurrekoak eta ondorengoak, bai eta bigarren mailako odol- edo ezkontza-ahaiak ere, baldin eta interes-gatazka sortu bada kontratazio-organismoaren titularrarekin edo*

kontratatzeko ahalmena eskuordetzan emanda duten organoetako titularrekin edo kontratazio-organoen titularren ordezkoein».

Bestalde, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duenak) adierazten du interes-gatazkak honako ezaugarri hauek dituela:

- a) Europar Batasuneko erakunde guztietako administrazio- eta eragiketa-partida guztiei eta kudeaketa-metodo guztiei aplikatu dakieke.
- b) Interes pertsonal oro asetzen du, dela zuzeneko dela zeharkakoa.
- c) Interes-gatazkatzat jotzen den edozein egoeraren aurrean, jardun egin behar da.
- d) Agintari nazionalak, edozein mailatakoak izanik ere, balizko interes-gatazkak saihestu eta/edo kudeatu behar dituzte.

Arestian aipatu bezala, interes-gatazkaren definizio bat baino gehiago dago, baina ezaugarririk garrantzitsuena da, beharbada, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen betebeharrak publikoaren eta interes pribatuaren arteko talka dela.

Beraz, esan daiteke interes-gatazka egongo dela, baldin eta, nahita egindako ekintza edo ez-egite baten ondorioz, interes orokorra edo beren zereginari esleitutako interes publikoa eta norberaren interes pribatuak edo hirugarren pertsonekin edo zuzeneko senideekin partekatutako interesak elkartzen dituzten gaiekin zerikusia duten erabakiak hartzen badira, baita haien egintzarekin edo ez-egitearekin beren asmoa lortzen ez badute ere.

Interes-gatazkan inplikatu daitezkeen eragileei dagokienez, izaera hori izango dute honako hauek:

- a) Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten enplegatu publikoak eta eginkizun horiek eskuordetu zaizkien beste eragile batzuk.
- b) Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratatistak, baldin eta haien jarduerak funtsekin finantzatzen badira, eta beren interesen alde baina EBren finantza-interesen aurka egiten badute, interes-gatazka baten esparruan.

5.2.- Udal-araudia

Bilboko udalbatzak 2015eko azaroaren 24ko ohiko bilkuran onartu zuen *Bilboko Udalaren jokabideari, gobernu onari eta kalitate instituzionalarekiko konpromisoari buruzko kodea*. 2017ko maiatzaren 25ean aldatu egin zen, eta Etika eta Gobernu Onaren Batzordeak egindako zenbait hobekuntza-proposamen sartu ziren.

Talde politiko guztiek parte hartu zuten prozesu baten bidez egin zen kodea, eta zehazten du zer jokabide-printzipio eta estandar bete behar dituzten Bilboko Udaleko ordezkari

politikoeak, udaleko zuzendaritza-organoetako titularrek eta udaleko erakunde instrumentaletarako goi-zuzendaritzako kontratuen titularrek.

Interes-gatazkek erregulazio espezifikoa dute kode horretan. Zehazki, honela definitzen da: «*Interes-gatazkak sortzen dira interes publiko batek edo batzuk eta beste interes pribatu edo publiko batzuk elkar oztopatzen dutenean. Horrelakoetan, arriskuan jartzen da (edo arriskuan jartzen dela dirudi) zeregin publiko nagusia independentea, objektiboa eta inpartziala izatea*». Gainera, honako jarduketa-estandar hauek betetzeko betebeharra ezartzen zaie Bilboko Udaleko ordezkari politikoei, Udaleko zuzendaritza-organoetako titularrei eta erakunde instrumentaletako goi-zuzendaritzako kontratuen titularrei:

- Interes-gatazka oro saihestu behar da; horretarako, kontuan izan behar dira erabakiak hartzeko prozesuetan interes pribatuen eraginak egon daitezkeen kasuak, baldin eta betebeharrak publikoak betetzea oztopatzen edo desbideratzen badute.
- Ez dituzte beren prerrogatibak edo eskumen instituzionalak erabiliko prozedurak arintzeko, kargetatik salbuesteko edota hirugarren pertsonen onurak emateko, udalekoak bakarrik ez diren interesengatik. Ez dituzte erabiliko, ezta ere, kalte edo galerarik eragiteko. Ez dute neurritz kanpo baliatuko esleituta duten boterea eta agintea.
- Era berean, ez dute inolako negoziarik egingo, baldin eta, zuzenean edo zeharka, udalaren interes publikoekin talka egin badezakete edo, zuzenean edo zeharka, ordezkarietako edo zuzendaritzako kargu publikoaren jardura publikoa zalantzan jartzen badute.
- Kargu publiko bat betetzen ari dela bere betebeharrak eta erantzukizunekin talka egiten duen edo talka egin dezakeen interes-gatazka baten eraginpean dauden pertsonen berehala jakinarazi beharko dute –ahal dela, idatziz– gatazka hori dagoela edo, gutxienez, susmoa dagoela adierazteko. Nolanahi ere, interes-gatazka bat edo interes-gatazka baten susmoa badago, erakundearen prestigioa salbatzeko kautelazko neurri gisa, interes-gatazka baten susmorik txikiena duten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeari uko egin beharko dio.
- Alderdi politikoetako zuzendaritza-organo exekutiboetan aritzeak ez du inola ere arriskuan jarriko edo eragotziko beren eginkizunak betetzea.

5.3.- Sailkapena

Interes-gatazken sailkapenari dagokionez, eta interes-gatazka eragingo lukeen egoera kontuan hartuta, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak –Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duenak–, iruzurraren prebentzio- eta borroka-organoek onartutako nazioarteko sailkapenari jarraitzen dio, eta honako hauek bereizten ditu:

- a) Itxurazko interes-gatazka: enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek bere eginkizunak edo betebeharrak modu objektiboan betetzea arriskuan jar dezaketenean gertatzen da, betiere, azkenean, pertsona horren jokabidearen, portaeraren edo harremanen alderdi zehatzekin lotura identifikagarri eta indibidualik aurkitzen ez bada (edo alderdi horietan eraginik izan ez badu).
- b) Balizko interes-gatazka: enplegatu publiko edo onuradun batek halako interes pribatuak dituenean sortzen da; interes horiek interes-gatazka sor lezakete, etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar badituzte.
- c) Benetako interes-gatazka: enplegatu publikoak betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen artean gatazka duenean sortzen da, edota enplegatu publikoak interes pertsonalak dituenean eta interes horiek modu bidegabean eragin dezaketenean bere betebeharrak eta erantzukizun ofizialetan. Onuradunaren kasuan, funtsen laguntza eskatzean hartutako betebeharren eta bere interes pribatuen artean sor daiteke gatazka, horiek modu bidegabean eragin baitezakete betebeharrak horietan.

5.4.- Hartu beharreko neurriak

5.4.1.- Prebentzio-neurriak

Interes-gatazka prebenitzeko fasea kudeatze aldera, neurri hauek hartuko dira:

- a) **Prestakuntza:** erakundeko langileei interes-gatazkaren modalitateak eta hori saihesteko moduak jakinaraztea eta horiei buruzko informazioa ematea, ikastaro espezifiko bidez.
- b) **Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA)** betetzeko eskatzea prozeduretan esku hartzen dutenei, eta, bereziki, kontratazio-organoaren titularrari edo titularrei eta kontratuen baldintzak (bai administrazio-klausula partikularrei buruzkoa, bai preskripzio teknikoei buruzkoa) idazten parte hartzen dutenei. Adierazpena betetzeko eskatuko zaie, baita ere, kontratazio-mahaietako kideei, adituen batzordeko kideei eta kontratuaren barruan balorazio-txostenak egiten dituzten teknikariei. Ezinbestekoa da, halaber, kontratistak adierazpena aurkeztea, dela kontratua formalizatzen den unean bertan dela kontratua formalizatu eta berehala. Azpikontratista guztiek ere aurkeztu beharko dute. Plan honen 2. eranskinean jaso da IGEAren edukia.
- c) Informazioa egiaztatzea merkataritza-erregistroetako datu-baseen bidez, estatu mailako erakundeetako eta EBko datu-baseen bidez, langileen espedienteen bidez (datuak babesteko arauak kontuan hartuta), etab.
- d) Dagokion barne-araudia zorrotz aplikatzea, bereziki urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (horren bidez onartu zen Enplegatu. Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina) 53. artikulua, printzipio etikoei buruzkoa; hala ere, honako hauek ere barne hartu beharko lirateke: aipatu legearen VI. kapitulua, oso-osorik («Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide-kodea»); urriaren 1eko 40/2015 Legearen (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena) 23. artikulua, abstenitzeari buruzkoa, eta 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

5.4.2.- Interes-gatazkei aurre egiteko neurriak

Prebentzio-neurriak badaude ere, baliteke interes-gatazka sortzea. Kasu horretan, zenbait neurri hartu beharko dira:

- a) Interes-gatazka bat egoteak ekar lezakeen egoeraren berri ematea hierarkian gorago dagoenari. Hark Iruzurraren aurkako Batzordeari helaraziko dio, eta idatziz berretsi beharko du gatazka hori dagoela uste duen ala ez.
- b) Dagokion barne-araudia zorrotz aplikatzea, bereziki, urriaren 1eko 40/2015 Legearen (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena) 24. artikulua, errekusatzeari buruzkoa, eta 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

5.5.- Ondorioak

Bilboko Udaleko kideek independentziaz, profesionaltasunez eta beren erakundearekiko leialtasunez jardun behar dute une oro, beren interesak edo hirugarrenenak alde batera utzita, eta ez dute esku hartuko edo eraginik izango udal-erakundeari eragin diezaiokeen eta interes-gatazka tartean dagoen erabaketan, ez eta erabaki horiek planteatzen diren bileretan parte hartu eta gatazka horri eragiten dion informazio konfidentziala eskuratu ere.

Gai honetan oso garrantzitsua da udal-funtzionarioen prestakuntza espezifiko eta etengabeko prestakuntza. Interes-gatazkak bermeekin eta eraginkortasunez detektatzeak eta kudeatzeak administrazioaren jarduna babesten laguntzen du, interes orokorraren defentsari dagokionez. Garrantzitsua da zerbitzari publikoek araudi aplikagarria xehetasun guztiekin ezagutzea, arlo horretako betebeharrak gogora ekartzen dituen etengabeko prestakuntza-prozesu baten bidez.

Interes-gatazka bat aurkituz gero, dela benetakoa dela balizkoa, arau hauen arabera jokatu behar da:

- a) Interes-gatazkak eragindako pertsonak modu proaktiboan eta gardenean aitortuko dute balizko interes-gatazka oro, Iruzuraren aurkako Batzordearen eta hierarkian gorago dagoen pertsonaren aurrean.
- b) Interes-gatazkak eragindako pertsonak ez dute informazio konfidentziala eskuratuko.
- c) Interes-gatazkak eragindako pertsonak abstenitu egingo dira eztabaidetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan.
- d) Eragindako pertsonak interes-gatazkak konpontzen lagunduko dute.

6. OPARIEN ETA BALIZKO ONUREN POLITIKA

Plan honen eraginpeko pertsonak hirugarrenen interferentzia eta eragin oro saihestuko dute, baldin eta haien inpartzialtasuna, osotasuna eta objektibotasun profesionala alda badezake.

Pertsona edo erakundeek ez dute inolako oparirik edo zerbitzurik onartuko beren karguarengatik ematen diren usadio sozial, ohiko eta kortesiazkoetatik harago. Aipatutako ohiko usadioetatik harago doazen oparien kasuan, erakundearen ondarean sartuko dira. Nolanahi ere, ukatu egingo dute beren etorkizuneko erabaki politiko, publiko edo administratiboetan eragina izan dezakeen edozein dohaintza, opari edo zerbitzu.

Ez dute inolako sarrerarik, txartelik, loteria-zenbakirik edo zuzeneko edo zeharkako beste edozein onurarik onartu behar, baldin eta usadio sozial, ohiko edo kortesiazkoetatik harago badoaz, edo etorkizunean beren erantzukizunak gauzatzean erabakiak hartzea baldintzatu badezakete.

Era berean, zentzuzko neurri guztiak hartu beharko dituzte beren senideek opariak edo onurak jasotzen ez dituztela bermatzeko, baldin eta edozein pertsonaren edo erakunderen mesederako tratua susmorik txikiena ere sor badezakete.

Ez dute diruzko edo gauzazko ordainsaririk onartu behar hitzaldiak emateagatik, liburuetan, aldizkarietan edo egunkarietan parte hartzeagatik edo elkarrizketa nahiz eztabaidetan parte hartzeagatik, betiere beren eginkizunekin zerikusia badute.

7. IRUZURRAREN ETA USTELKERIAREN AURKAKO PREBENTZIO- ETA BORROKA-NEURRIAK

7.1.- Hurbilketa kontzeptuala

«Iruzur» terminoa etikarrik gabeko jokabide ugari deskribatzeko erabiltzen da, hala nola lapurreta, ustelkeria, eroskeria, faltsifikazioa eta kapital-zuriketa. Askotan, engainua erabiltzen da, erakunde publiko bati lotutako pertsona batentzat edo hirugarren batentzat irabazi pertsonalak lortzeko, bai eta beste pertsona batentzat galerak lortzeko ere.

Asmoa da iruzurra eta irregulartasuna bereizten dituen funtsezko elementua. Iruzurrak, finantza-ondorioak eragiteaz gain, kalte egiten dio funtsen kudeaketa eraginkor eta efizienteaz arduratzen den erakundearen izen onari.

Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzko 2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 3.1 artikulua araberan, iruzurra da «*Nahita egindako edozein ekintza edo ez-egite, honako hauei dagokienez:*

- a) *Europako erkidegoen aurrekontu orokorretik edo Europako erkidegoek edo haien kontura administratutako aurrekontuetatik datozen funtsak bidegabeki jaso edo atxikitzea ondorio duten aitorpen edo agiri faltsuak, okerrak edo osatu gabeak erabili edo aurkeztea.*
- b) *Ondorio bera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharra ez betetzea.*
- c) *Funts horiek hasieran eman ziren xedeez bestelako helburuetara desbideratzea».*

Era berean, Europako erkidegoen finantza-interesak babesteari buruzko Kontseiluaren 1995eko abenduaren 18ko 2988/95 (EE, Euratom) Erregelamenduaren 1.2 artikulua honela definitzen du irregulartasuna:

«*Eragile ekonomiko baten ekintza edo ez-egite bati dagokionez, Erkidegoko Zuzenbidearen xedapen baten urraketa oro, baldin eta horren ondorioz erkidegoen aurrekontu orokorrari edo haiek administratutako aurrekontuei kalte egiten bazaie, dela erkidegoen kontura zuzenean jasotako baliabide*

propioetatik datozen diru-sarrerak murriztu edo ezabatzen direlako, dela bidegabeko gastu bat egiten delako».

7.2.- Prebentzioa, detekzioa eta zuzenketa: iruzurraren aurkako zikloa

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (aurrerantzean, SEM) Erregelamenduaren 22. artikulua arabera, estatu kideek neurri egokiak hartu behar dituzte iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko, eta legezko ekintzak gauzatu, bidegabeki eskuratu diren funtsak berreskuratzeko.

SEEPren jarduketetan parte hartzen duten erakundeek iruzurraren aurkako neurri egokiak aplikatu beharko dituzte, iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementuen inguruan egituratuta: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

Prebentzioa

Honako prebentzio-neurri hauek hartu dira plan honetan:

A. Kultura etikoa sortzea, alderdi hauek oinarri hartuta, besteak beste:

- Balioak sustatzea, hala nola osotasuna, objektibotasuna, kontuak ematea eta zintzotasuna.
- Iruzurraren aurkako jokabide-kode bat ezartzea, honako alderdi hauek barne hartzen dituena: interes-gatazka, opariak, konfidentzialtasuna, salaketak egiteko bideak (salaketa-postontzia eta/edo SNCARI salaketak jakinarazteko bidearen lotura), eta abar. Alderdi horiek iruzurraren aurkako plan honetan garatzen dira.

B. Prestakuntza eta kontzientziaketa.

Prestakuntza-ekintzak maila hierarkiko guztietara zuzendu behar dira, barne hartuta bilerak, mintegiak eta lantaldeak, betiere ezagutzak eskuratzea eta transferitzea sustatzen badute. Arriskuak identifikatzen eta ebaluatzen dituzte, kontrol espezifikoak ezartzen dituzte, iruzurra detektatzean jarduten dute, erreferentziako kasu praktikoak lantzen dituzte, etab.

C. Udaleko agintarien inplikazioa. Zera egin beharko dute:

- Iruzurraren aurkako konpromiso irmoa adierazi eta iruzurra inola ere ez onartu (1. eranskina: «Iruzurraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzionala»).
- Iruzur-arriskua kudeatzeko erabakiak hartzean, proposamen proaktiboa, egituratua, espezifikoa eta eraginkorra egitea.

– Iruzuraren aurka jarduteko plan bat prestatzea, erakunde barruan eta kanpoan iruzurraren eta ustelkeriaren gaineko jarrera ofiziala helarazteko.

D. Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-jarduketetan eginkizunak eta erantzukizunak modu argian eta berezian antolatzea, bereizketa hori agerian uzteko.

E. Arriskua ebaluatzeko mekanismo egokiak ezartzea kudeatutako neurri guztietarako, eta horren ebidentzia uztea, iruzurra jasan dezaketen prozesuko alderdiak bilatzeko, eta bereziki kontrolatzea, honako hauek aintzat hartuta:

– Iruzurra jasateko arriskurik handiena duten neurriak identifikatzea, hala nola intentsitate handikoak, aurrekontu handikoak, eskatzaileak justifikatu beharreko baldintza asko dituztenak eta kontrol konplexuak.

– Balizko interes-gatazkak identifikatzea.

– Barne-ikuskapenen aurretiko lanen emaitzak.

– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren ikuskapenen emaitzak.

– Aurretik detektatutako iruzur-kasuak.

F. Barne-kontrolako sistema eraginkorra, behar bezala diseinatua eta kudeatua dagoena eta identifikatzen diren arriskuak eraginkortasunez arintzeko kontrolak dituen.

G. Datuak aztertzea. Datuak babesteari buruzko mugen barruan, datuak gurutzatzea sektoreko beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin, funtsak eman aurretik ere arrisku handiko egoerak detektatu ahal izateko.

Detekzioa

Prebentzio-neurriek ezin dute iruzurraren aurkako babes osorik eskaini. Hortaz, beharrezkoa da prebentzioari ihes egiten dioten iruzurrezko jokabideak garaiz hautemateko sistemak izatea. Hala, iruzurraren aurkako estrategia on batek kontuan hartu behar du agian kasu jakin batzuetarako beharrezkoa izango dela iruzurra detektatzeko neurriak diseinatu eta gauzatzea.

Plan honekin iruzurra detektatzeko, neurri hauek ezarri behar dira:

A. Eskura dauden datu-baseak erabiltzea, iruzurrezko jokabideak identifikatu ahal izateko.

B. Balizko iruzurraren adierazleak sortzea (bandera gorriak) eta horiek detektatzeko gai diren langileei jakinaraztea (5. eranskina: «Adierazleen/bandera gorrien katalogoa»).

C. Postontzi espezifikoko bat jarriko da martxan funts publikoen kudeaketan egindako jarduketaren salaketak jasotzeko. Salaketa horiek protokolo espezifikoko baten bidez tratatuko dira, eta salatzailen nortasuna babestuko da.

Zuzenketa

Aurreko apartatuetan ikusi dugun bezala, balizko iruzurrak edo horren susmo sendoak ekarriko du prozedura berehala etetea, agintari interesdunei eta jarduketetan inplikaturako erakundeei egoera horren berri ahalik eta lasterren jakinaraztea eta horren eraginpean egon daitezkeen proiektu guztiak berrikustea.

Horretarako, honako hauek egingo dira:

- a) Iruzurraren eragina ebaluatu eta sistemikotzat edo puntualtzat jo.
- b) Iruzurrak eragindako eta SEMk finantzaturako edo finantzatu beharreko proiektuak edo proiektu zatia kentzea.

Jazarpena

Iruzurraren aurkako zikloaren azken fasea da. Honako hauek egingo dira, ahalik eta lasterren:

- Gertaeren eta hartutako neurrien berri ematea erakunde erabakitzaileari; hark gaiaren berri emango dio agintaritzari arduradunari, eta egokitzen jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango du, jarraipena egiteko eta Kontrol Agintaritzari jakinarazteko.
- Agintari publiko eskudunei (SNCA-Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala) egitate zigorgarriak salatzea, baloratu ditzaten eta Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari (OLAF) jakinaraz diezazkioten.
- Informazio erreserbatua abian jartzea, erantzukizunen espedientea irekitzeko edo, hala badagokio, diziplina-espedienteari hasiera emateko.
- Gertakariak fiskaltza eta epaitegi eskudunen aurrean salatzea, hala dagokion kasuetan.

8. ARRISKUEN EBALUAZIOA

HFP/1030/2021 Agindua betez, Bilboko Udalak metodologia espezifiko bat du Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan proiektuak gauzatzearekin zerikusia duten arriskuak aztertzeko eta ebaluatzeko. Metodologia Europako Batzordearen autoebaluaziorako tresnan dago oinarritua (*Guidance Note on fraud risk assessment for 2014-2020*).

Helburua da, batetik, kudeaketa-prozesuetan gerta daitezkeen arrisku espezifikoak identifikatzea, eta, bestetik, detektatutako iruzur- eta ustelkeria-arriskuak eta interes-gatazkenak arintzeko hartu behar diren neurri eraginkorrak eta egokiak hautatzea.

Proposatutako sistemaren xedea da neurri guztien eraginkortasuna baloratzea eta erakundeak ezarritako helburu estrategikoen barruan jasaten duen iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazkaren arrisku-maila mugatzea. Horretarako, ahalik eta modu eraginkorrenean erabiliko dira eskura jarritako bitartekoak, zuzendaritzak gainbegiratu dezan eta datu objektiboetan oinarrituta hartu ahal izan ditzan erabakiak.

Arriskuen mapa 7. eranskinean dago jasota, eta Iruzurraren aurkako Batzordeak eguneratu beharko du.

9. IRUZURRAREN AURKAKO BATZORDEA

Iruzurraren aurkako Batzordea sortu da (aurrerantzean, IAB); kide anitzeko organoa da, eta bera arduratuko da prebentzioaren, detekzioaren eta erreakzioaren arloan iruzurraren aurkako neurriak behar bezala aplikatzeaz.

Independentziaz eta inpartzialtasunez jokatu beharko du, eta ahalik eta arreta eta gaitasun profesional handienarekin egin beharko du lan.

Iruzurraren aurkako Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

- Kontu Hartzailea.
- Udal Aholkularitza Juridikoko Zuzendaritzako titularra
- Udalbatzako Idazkari Nagusia

IABri dagokio honako eginkizun hauek betetzea:

- Politika honen garapena, ezarpena, funtzionamendua, eraginkortasuna eta betetzea zuzentzea eta gainbegiratzea.
- Iruzurrezko ekintzak eta jokabideak inola ere ez onartzeko printzipioan oinarritutako prebentzio-kultura sustatzea.

- Arriskuen mapa baten prestaketa-prozesua zuzentzea, bai eta zaintza- eta kontrol-planena eta prozedurena ere.
- Udalaren barruan iruzurra, ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko barne-kontrol eta arau egokiak onartzea proposatzea.
- Detektatutako arriskuak eta arrisku bakoitzari aplikatu dakizkiokeen kontrolak aldizka ebaluatzea.
- Politika hau interpretatzea eta haren edukiari, aplikazioari edo betetzeari buruz egindako kontsultak edo zalantzak ebaztea.
- Salaketak egiteko bidea kudeatzea, eta horrekin lotuta egindako jarduera guztien erregistroa egitea, dokumentuak kudeatzeko sistema baten bidez, sistemaren funtzionamendua azkar frogatu eta gerta daitezkeen akatsak detektatu ahal izateko.
- Iruzurrezko jokabidea izan daitekeen edozein gertakariren inguruan egiten diren barne-ikerketak hasia eta zuzentzea, eta organo eskudunei dagozkion zehapenak ezartzea proposatzea.
- Politika honetan komeni diren aldaketak proposatzea.

Horretarako, Udaleko sail eta prozesu bakoitzak bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio eta dokumentazio guztia bildu ahal izango du, eskatutako pertsonaren hierarkia-maila edozein dela ere.

IABk isilpean gordeko ditu bere eztabaidak eta erabakiak, eta, oro har, ez ditu emango bere karguan diharduela eskura dituen informazio, datu, txosten edo aurrekariak, ezta bere edo hirugarrenen onurarako erabiliko ere.

Salaketak eta kontsultak jasotzeaz arduratuko da, eta politika honetan adierazitakoaren arabera tramitatuko dira. Irregularitasunaren egiazkotasuna eta zehaztasuna egiaztatuko ditu, eta entzunaldi-izapidea emango die kaltetu eta lekuko guztiei; halaber, beharrezkotzat jotzen dituen eginbide guztiak gauzatuko ditu. Plan honen eraginpean dauden guztiak behartuta daude ikerketan leialki laguntzera. Lekukoen eta ukituen esku-hartzea konfidentziala izango da erabat.

Egitateak ikertu eta egiaztatutakoan, IABk balorazio-txosten bat egingo du ahalik eta lasterren, ikerketatik ateratako ondorioekin eta proposamenekin, eta txosten hori gaiaren arabera eskumena duenari helaraziko dio, egindako jarduketekin batera.

4. eranskinean IABren funtzionamendu-erregelamendua arautzen da.

10. ESTATU-LAGUNTZAK ETA KOLUSIO-ARRISKUA.

Bilboko Udalak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzen parte hartzen duen erakundea den aldetik, prozedurak aplikatuko ditu estatu-laguntzei eta lehia askeari buruzko araudia une oro erabat errespetatzen dela ziurtatzeko, bai eta finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko ere. Horretarako, prozedura horiek bat etorriko dira Kudeaketako Ministro Aginduaren 7. artikuluekin eta III.D eranskinarekin, estatu-laguntzen araubidearekin bateragarritasunari eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioari buruzkoarekin.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak (EBFT) 107. artikuluan ezarritakoaren arabera, estatu-laguntza da estatuek edo estatuko funtsen bidez, edozein modutan, emandako laguntza oro baldin eta lehia faltsutu edo faltsutzea mehatxatzen badu enpresa edo ekoizpen jakin batzuei mesede eginez.

Bestalde, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. eta 102. artikuluek debekatu egiten dute operadore ekonomiko batek lehia askea faltsutu edo murrizten duen aldebakarreko edo alde anitzeko edozein jokabide izatea. Udalak printzipio horiek errespetatu beharko ditu une oro, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan, Lehia Defendatzeko Legean eta Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoaren arabera.

Horretarako, autoebaluazio bat egingo du, estatu-laguntzen erregimenarekiko bateragarritasunari eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioari buruz (6. eranskina). Gutxieneko estandarrari buruzko autoebaluazio-galdetegia da, eta Bilboko Udalak aldian-aldian bete beharko du, emaitzen txostenetan antzemandako arriskuaren arabera.

Arau horiek ez betetzea ekar dezakeen edozein kasu antzemanaz gero, Udalak prozesua geldiaraziko du eta agintari eskudunei jakinaraziko die, Europako Batzordeak arlo horretan emandako gomendioei jarraituz.

11. IRUZURRAREN AURKAKO POSTONTZIA

11.1.- Sarrera

Jokabide txarraren, iruzurraren, ustelkeriaren edo beste edozein urraketa etikoren susmoak modu konfidentzial eta babestuan jakinarazteko aukera bermatzen du Udalak. Horretarako, Udalak iruzurraren aurkako postontzi bat ezartzeko konpromisoa hartzen du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauan, Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesari buruzkoan, aurreikusitakoa errespetatuz.

Kanal segurua da, eta gobernu onaren printzipioen aurkako edozein ekintza edo ez-egite ezagutu ahal izateko espazio bat eskaintzea komeni delako sortu da, kudeaketa publikoa indartzeko modu gisa.

Postontziak informazio guztien konfidentzialtasuna bermatzeko mekanismoak barne hartzen ditu, eta komunikazio-espazio segurua eskaintzen du, organo kudeatzailearekin harremanetan egoteko eta izapidetze-egoera jakiteko ahalbidetzen duena. Edozein pertsona edo zerbitzari publikok informazioa askatasunez eman ahal izatea bultzatu nahi da, errepresaliarik jasan gabe. Ez da salaketa anonimorik onartuko.

Era berean, iruzurraren aurkako postontziaren bidez, Integritate Politika osatzen duten arauak eta printzipioak buruzko kontsultak egin ahal izango dira, besteak beste, horien irismenari eta manuen interpretazioari buruzko zalantzak. Kasu zehatzen inguruko kontsultak ere egin ahalko dira.

Iruzuraren Aurkako Batzordearen ardurak izango dira salaketak eta kontsultak izapidetzea.

Ez dira onartuko ustezko iruzurrezko jarduerak edo jarduera ustelak salatzeagatik errepresaliak eta zigorrak, eta salatzaile orok Udalaren laguntza eta babesa jasotzeko eskubidea izango du, edozein errepresalia mota saihesteko.

Iruzuraren aurkako postontzia da Bilboko Udalean eta haren mendeko erakundeetan jardunbide txarrekin lotutako komunikazioak onartzeko lehentasunezko kanala, hargatik eragotzi gabe komunikazioak beste bide batzuetatik edo aurrez aurre herritarren arretarako bulegoetan onartzea.

11.2.- Helburuak

Postontzi honen helburua da edozein pertsona edo zerbitzari publikok udal-administrazioak egindako jokabideak komunikatu ahal izatea, baldin eta jokabide horiek zuzenbidearen, printzipio edo arau etikoen eta indarreko arau-esparruan zehaztutako gobernu eta administrazio onaren aurkakoak badira.

Helburua da baliabide publikoen erabilera zuzena, interes-gatazken ebazpena, kudeaketa publikoaren objektibotasuna eta neutraltasuna zaintzea, oro har, udal-eskumenak gauzatzean, eta, bereziki, kontratazio publikoari, funtzio publikoari, sustapen-jarduerari, hirigintza-antolamenduari eta abarri dagokienez.

Iruzuraren aurkako postontziaren helburuak honako hauek dira:

- a) Kudeaketa publikoan gobernu ona eta jardunbide egokiak sustatzea eta hobetzea.
- b) Hautetsiek eta Udalaren zerbitzuko langileek bete behar dituzten printzipio edo arau etikoak eta gobernu eta administrazio onekoak betetzen laguntzea.

- c) Lehen adierazitako jokabideak sustatzen laguntzea, prebentzioari lehentasuna emanaz jokabide erreaktiboan gaineratuz.
- d) Udal-administrazioaren eta pertsonen arteko lankidetzaren sustatzea, parte-hartzearen bidez kudeaketa publikoan balio etikoak lantzeko.

11.3.- Jarduketaren-eremua

Botere publikoak erabiltzean nahita egindako administrazio txarreko edozein jarduketari buruzkoak izan daitezke komunikazioak, pertsona fisiko edo juridikoen mesederako eta interes orokorren kalterako egindakoak. Horrenbestez, iruzur edo ustelkeria izan daitekeen agintari, zuzendari edo udal-langileen jardura oro sala daiteke. Era berean, interes-gatazkari buruzko arauak ez betetzea dakarten jokabide guztiak sala daitezke.

Ezin dira salatu polizia judizialaren, Fiskaltzaren edo agintaritzaren judizialaren eskumenekoak diren jokabideak edo egitateak, ezta haiek ikertu edo instruitu beharreko egitateak ere.

Postontzira zuzendutako komunikazioek, kontuan hartu eta onar daitezkeen, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Jakinarazten den egoerari buruz eskuragarri dagoen dokumentazio guztia edo frogak lortzeko zantzu objektiboak ematea, iritzietan soilik oinarritutako jarduketarik ezin baita abian jarri.
- Helarazten den informazioaren arrazoizko ziurtasuna izatea, zeinak udal-sektore publikoaren osotasunerako garrantzi berezia izan behar duen.
- Nolanahi ere, jasotako informazioa ez da bideratuko oinarririk ez duenean edo nabarmen faltsua denean, edo bidalitako informazioaren urritasunak, gertaeren deskribapen orokorregiak eta zehaztugabeak edo emandako froga-elementurik ezak ez dutenean uzten jasotako informazioa zentzuz egiaztatzen eta komunikatutako gertaerei eman beharreko tratamendua zehazten.

11.4.- Funtzionamendua

Komunikazioa postontziaren bidez aurkeztu ondoren, pertsonen bidalketaren hartu-agiri bat eskuratuko dute aplikazioan, isilpeko komunikazio-kanal batera sartzeko kode alfanumeriko bat izango duena.

Kodea da kanal horretara sartzeko modu bakarra, eta komunikatzailearen ardura da kodea gordetzea.

Komunikazio elektronikoko kanal seguru horrek komunikazioen konfidentzialtasuna bermatzen du. Horri esker, postontzia kudeatzen duen organoarekin, hau da, Iruzuraren

aurkako Batzordearekin, lankidetzan jardun daiteke, gertakariak egiaztatzeko eta komunikazioaren izapidetze-egoera ezagutzeko.

Postontziaren bidez egindako informazio-eskakizunei ez erantzuteak jarduketak artxibatzea ekar dezake.

11.5.- Komunikazioen jarraipena

Jakinarazpena aurkeztu eta izapideak egiteko onartu ondoren, egitateak egiaztatuko dira.

Ikerketa-lanen bidez egingo da, eta, hala badagokio, gomendioak egingo dira kudeaketa publikoa hobetzeko neurriekin, edo organo eskudunari proposatuko zaio administrazio-espeditenteak hastea apurtutako legezkontasuna berrezartzeko, zehapen- edo diziplina-neurriak hartzeko edo Fiskaltzari legez kontrako jokabideak jakinarazteko.

Prozesu osoan zehar, informazioa ematen duten pertsonen zein emandako informazioak eragindako pertsonen osotasuna bermatzeko mekanismoak hartuko dira.

11.6.- Konfidentzialtasun-bermea

Informazioa jakinarazten duen pertsonak berariaz kontrakoa eskatzen duenean izan ezik, erabateko konfidentzialtasuna gordeko da bere nortasunari dagokionez, eta, beraz, ez zaio inori jakinaraziko.

Horretarako, egiten diren komunikazio, egiaztapen-jarduera edo dokumentazio-eskaera guztietan, ez dira jasoko informazioa igorri duen pertsonaren nortasunari buruzko datuak, ez eta erabat edo partzialki pertsona hori identifikatzera eraman dezakeen beste edozein datu ere.

Era berean, jarduketak beste organo batzuei helarazi behar zaizkienean, organo horiek dagozkien prozedurak izapidetu ditzaten, aurreko lerrokadan xedatutakoa aplikatuko zaio beste organo horiei igortzen zaien dokumentazioari, salbu eta organo jurisdikzionalak edo Fiskaltzaren organoak direnean eta prozedura judiziala arautzen duen araudiak besterik eskatzen duenean. Azken kasu horretan, informatzailearen nortasuna ezinbestekoa den pertsona edo organoei soilik jakinaraziko zaie.

11.7.- Salatzailearen eskubideak

- Espedientea amaitu dela jakinaraziko zaio.
- Salaketak ez du beste ondoriorik izango Iruzuraren aurkako Batzordeari ustezko egitate irregularren berri ematea baino, eta salatzailea ez da inola ere emandako informaziotik eratorri daitezkeen administrazio-jardueretan interesduntzat joko. Era berean, ez du legitimaziorik izango jarduera horien emaitzei buruzko errekurtsoak edo erreklamazioak jartzeko.
- Bilboko Udalak jakiten badu salatzaileak, zuzenean edo zeharka, larderia edo errepresaliak jasan dituela salaketa aurkezteagatik, egoki iritzitako zuzenketa- edo berrezartze-ekintzak gauzatu ditzake.

12. PRESTAKUNTZA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Funtsezkoa da udal-jarduketetan osotasuna lortzeko, arriskuak identifikatu eta ebaluatzeko ezagutzak eskuratzea, kontrol espezifikoak ezartzea eta iruzurra antzemanaz gero nola jardun behar den ezartzea.

Adierazitakoarekin bat etorriz, eta prebentzio-neurri gisa, prestakuntzako eta kontzientziazioko ikastaro espezifikoak egingo dira Udaleko kide guztientzat, tartean kontrolaren ardura duten hierarkia-maila guztietako kideak, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken aurkako borrokan kontzientzia har dezaten eta gaitasunak eskura ditzaten.

Prestakuntza-ekintza horiek teorikoak eta praktikoak izango dira, eta langile propioen eskutik edo iruzurraren aurkako borrokaren arloko ezagutzak zabaltzen dituen beste edozein organo edo erakunderen laguntzarekin emango dira.

13. DATU PERTSONALEN BABESA

Plan honen esparruan bildutako datuak jasotako salaketak eta kontsultak kudeatu, izapidetu eta erantzuteko eta, hala badagokio, irregulartasunak ikertzeko behar diren datu zorrotz eta objektiboak soilik izango dira.

Datu horiek helburu horretarako bakarrik erabiliko dira, eta ez dira helburu bateraezinetarako erabiliko.

Udalak beharrezko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak hartu ditu, politika honen esparruan tratatutako datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko.

14. PLANA BERRIKUSTEA ETA EGUNERATZEA

Gobernu Batzordeak onartzen duenean jarriko da indarrean plan hau, eta Iruzuraren aurkako Batzordeak egin ditzakeen gomendioak kontuan hartuta berrikusiko da.

Iruzuraren aurkako Neurrien Plan honen edukiari eragiten dion gorabehera orok (prozedura berriak sartzea, aurrekoak bertan behera uztea edo aldatzea, eta abar) plana eguneratzea ekarriko du, betiere gorabehera hori eta plana eguneratzen den hilabeteko data jasota eta haren erregistro historikoa gordeta.

15. IRUZURAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA JAKITERA EMATEA

Plana Udalaren webgunean argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 6. eta 7. artikuluetan jasotako publizitate aktiboaren betebeharra betetzeko.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA

IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

2020ko uztailaren 21ean, Europar Kontseiluak aldi baterako errekupeziarako ezohiko tresna bat adostu zuen, «Next Generation EU» (EBko hurrengo belaunaldia) izenekoa, 750.000 milioi eurokoa, estatu kideekin koordinatutako erantzun europar bat bermatzeko COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko.

«Next Generation EU» egitasmoaren barruan, bolumen handieneko tresnetako bat Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) da, 672.500 milioi euroko aurrekontua duena. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren helburuen garapenaren funtsezko zati gisa, irailaren 30eko BOEn argitaratu zen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua, zeinaren bidez Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plan bat (SEEP) egituratzen baiten. Plan horren arabera, administrazio publikoek hainbat neurri hartu behar dituzte, besteak beste, kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua egokitzea, eta kudeaketako sistema bat konfiguratzeko eta garatzea. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean aurreikusitako neurrietako (erreformak/inbertsioak) proiektuak eta azpiproiektuak definitu, planifikatu, egikaritu, jarraitu eta kontrolatzeko.

Bestalde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikulua bete behar jakin batzuk ezartzen dizkio Espainiako Estatuari Europar Batasunaren finantza-interesak babesteari dagokionez, eta, horretarako, iruzurraren aurkako neurrien plan bat egituratzeko bete beharra ezartzen du, Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko helburuarekin.

Bete behar hori betetze aldera, Aginduaren 6. artikulua («Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, atzemateko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea») ezartzen du SEEP neurrien betearazpenean parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok iruzurraren aurkako neurrien plan bat izan beharko duela, eta, plan horren bidez, bermatu eta adierazi beharko du, berezkoa duen jarduera-eremuan, jasotako funtsak iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, atzemateko eta zuzentzeko aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla.

«Iruzur» terminoak engainua erabiltzea dakar, erakunde publiko bati lotutako pertsona batentzat edo hirugarren batentzat irabazi pertsonalak lortzeko, edo beste pertsona batentzat galerak. «Ustelkeria» irabazi pertsonalak lortzeko botere-abusua da. «Interes-gatazka» dago pertsona baten funtzioen jardun inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean bere familiarekin, bizitza sentimentalekin, kideetasun politiko edo nazionalekin, interes ekonomikoekin edo, adibidez, EBko funtsen eskatzaile batekin partekatutako beste edozein interes-motarekin lotutako arazoengatik. Iruzurrak, ustelkeriak eta interes-gatazken

kudeaketa okerrak ez dituzte soilik finantza-ondorioak eragiten, kalte larria egiten diote baliabide publikoak eta, beraz, EBko funtsak, eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzeaz arduratzen den erakundearen ospeari.

Bilboko Udalak erabat arbuiatzen ditu iruzurra eta ustelkeria, eta kalitate juridiko, etiko eta moral handia mantentzeko konpromisoa hartzen du, baita osotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta zintzotasun printzipioen arabera jokatzeko konpromisoa ere. Gainera, bere eginkizunetan iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko konpromisoa berresten du, eta interes-gatazkak garaiz eta behar bezala kudeatzeko asmoa adierazten du.

Bilboko Udalak iruzurraren aurkako politika hau onartu du, edozein iruzur-jardueratan disuasio-eragina izango duen legearen betetze-kultura sustatzeko, eta iruzurra prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko aukera emateko, modu proportzionatuan, eraginkorrean, egokian eta denboran doitu.

Horrez gain, Bilboko Udalak konpromisoa hartzen du kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredu bat ezartzeko, estandar etiko onenekin bat datorren izapidetze eraginkorra ziurtatzeko EBko funtsak lortzeko eta bideratzeko espedienteetan, betiere, SEEP planean aurreikusitako helburuak bete asmoz.

Zehazki, besteak beste, honako jarduera hauek egiteko konpromisoa hartzen du epe horren barruan:

1. Entitatearen autoebaluazioa egitea eta abiapuntuko egoera zehaztea.
2. SEEP neurriak gauzatzean sor daitezkeen arriskuak identifikatzea. SEEP plana gauzatzeko funtsezko prozesuetan iruzur-arriskuaren eragina eta probabilitatea ebaluatzea.
3. «Iruzurraren aurkako zikloa» deiturikoaren funtsezko lau elementuen inguruko neurriak diseinatu eta ezartzea: iruzurraren prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena. Era berean, ustelkeria eta interes-gatazkak saihesteko neurriak diseinatu eta ezartzea. Bereziki, iruzurraren aurrean jokabide-kode bat lantzea, baita iruzurraren adierazleak ere (*red flags*).
4. Tresnaren berrikuspina (eta, hala badagokio, zuzenketa), bi urtean behin edo urtean behin, iruzur-arriskuaren arabera, eta, nolana ere, iruzur-kasuren bat detektatzen denean edo prozeduretan edo langileetan aldaketa esanguratsuak daudenean, SEEP neurriak betearazten ari diren bitartean.
5. SEEP planaren neurriak eta proiektuak gauzatzean sor daitezkeen interes-gatazkei aurre egiteko prozedura diseinatzea. Kasu batzuetan, prozedura horiek izapidetzeko laguntza ere eskain daiteke.

6. Gerta daitezkeen iruzur-kasuak kudeatzeko prozedura diseinatzea, baita horiek izapidetzen laguntzea ere.
7. Kultura etikoa garatzeko eta erakundearen barruan iruzurra prebenitzeko prestakuntza-ekintzak diseinatzea eta gauzatzea.
8. Iruzur, ustelkeria edo interes-gatazka kasuak salatzeko kanal bat ezartzea eta kudeatzea.

Bilboko Udalak barne jakinarazpen-kanalen bidez atzematen diren irregulartasunak edo iruzur eta ustelkeria susmoak salatuko ditu, eta une oro arituko da elkarlanean Iruzurraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarekin eta gainerako agintari eta erakunde publikoekin gertatutakoa argitzeko.

2. ERANSKINA

INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)

Espedientea:

Kontratua/dirulaguntza:

Goian aipatutako kontratazio/dirulaguntza prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, behean sinatzen dutenek, espedientea prestatzeko eta izapidetzeko prozesuan parte-hartzaile gisa, honako hau adierazten dute:

Lehenengoa. Honako hauen berri izatea:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, EURATOM) Erregelamenduaren (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua («Interes-gatazka») ezartzen du «interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, afinitate politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».
2. Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren edozein distortsio saihestea, prozeduraren gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitatzaille guztiei tratu-berdintasuna bermatzea.
3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstentzioa») ezartzen du prozeduran ez dutela esku hartu beharko «hurrengo apartatuan adierazitako inguruabarretako bat betetzen duten administrazioetako agintariak eta langileak». Honako hauek dira:
 - a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokkeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
 - b) Ezkontza-lotura edo ezkontzaren antzeko lotura eta laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, edo prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, edo horien bulego berekoa izatea edo horiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkartza edo mandataritza.
 - c) Aurreko apartatuan aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
 - d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko moduan aritu izana.

- e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridiko batekin zerbitzu-harremanak izatea, edo pertsona horri azken bi urteetan edozein motatako lanbide-zerbitzuak egin izana edozein inguruabar eta lekutan.

Bigarrena. Ez dagoela Europar Batasunaren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan adierazitako interes-gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, eta ez dagoela lizitazio-/emakida-prozedurari eragin diezaiokeen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluko abstentzio-arrazoirik.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen duela kontratazio-organoari/ebaluazio-batzordeari jakinarazteko, luzamendurik gabe, egoera hori eragiten duen edo eragin dezakeen interes-gatazka edo abstentzio-kausa oro.

Laugarrena. Ezagutzen dut interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezarritako diziplina-ondorioak/administratiboak/judizialak ekarriko dituela.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NAN zenbakia)

3. ERANSKINA

AUTOEBALUAZIO-TESTA, II.B.5 ERANSKINA, HFP/1030/2021 AGINDUA

GALDERA	BETETZE-MAILA			
	4	3	2	1
1. Ba al dago «iruzurraren aurkako neurrien plan» bat, erakunde betearazleak edo erakunde erabakitzaileak bermatu eta deklaratu ahal izateko, dagokion jarduera-eremuan, dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez?	4			
2. Egiaztatzen al da dagokion «iruzurraren aurkako neurrien plana» dagoela betearazpen-maila guztietan?	4			

PREBENTZIOA

3. Ba al da iruzurraren aurka borrokatzeko konpromisoa hartzen duen maila goreneko adierazpenik?	4			
4. Autoebaluazio bat egiten al da arrisku espezifikoak, horien inpaktua eta horiek gertatzeko probabilitatea identifikatzeko eta aldizka berrikusteko?	4			
5. Kode etikorik banatzen al da eta opari-politikari buruzko informaziorik ematen al da?	4			
6. Etika publikoa sustatzen duen eta iruzurra detektatzea errazten duen prestakuntzarik ematen al da?	4			
7. Interes-gatazkak tratatzeko prozedurarik egin al da?	4			
8. Esku hartzen duten guztiek betetzen al dute interes-gatazkarik ez dutela dioen adierazpena?	4			

DETEKZIOA

9. Zehaztu al dira iruzur-adierazleak edo alerta-seinaleak (bandera gorriak) eta jakinarazi al zaizkie jokabideok atzemateko moduan dauden langileei?	4			
10. Datuak aztertzeke edo arriskuak puntuatzeko tresnak erabiltzen al dira?	4			
11. Ba al dago interesdun orok salaketak aurkezteko biderik?			2	

12. Ba al dago salaketak aztertzeaz eta neurriak proposatzeaz arduratzen den unitaterik?	4			
--	---	--	--	--

ZUZENKETA

13. Iruzuraren eragina ebaluatzen al da eta sistemikotzat edo puntualtzat jo?	4			
14. Erretiratzen al dira Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatutakoak edo finantzatu beharrekoak izanik iruzurraren eraginpean dauden proiektuak edo proiektu zatiak?	4			

JAZARPENA

15. Gertatutakoa eta hartutako neurriak jakinarazten al zaizkie erakunde betearazleari, erakunde erabakitzaileari edo agintaritza arduradunari, dagokionaren arabera?	4			
16. Horrela dagokionean, salatzen al dira Estatuko edo Europar Batasuneko agintari publikoen, fiskaltzaren edo auzitegi eskudunen aurrean zigortzeko moduko egitateak?	4			
Puntuen guztizko partziala	60		2	
Puntuak guztira	62			
Gehieneko puntuak	64			
Puntu erlatiboak (puntuak guztira/gehieneko puntuak)	0,97			

Oharra: 4 gehieneko betetzearen baliokidea da, 1 gutxienekoarena.

4. ERANSKINA

IRUZURRAREN AURKAKO BATZORDEAREN ERREGELAMENDUA

HITZAURREA

Hainbat arrazoik adierazten dute beharrezkoa dela Bilboko Udalean organo tekniko bat sortzea, independentea eta lantalde gisa artikulatua, espezifikoki iruzurraren aurkako prebentzio- eta borroka-neurriak sustatzera bideratuko dena. Izan ere, iruzurrak, adierarik zabalenean, egiaren eta zuzentasunaren aurkako ekintza bat dakar, ekintza hori jasaten duen pertsonari kalte egiten diona. Arrazoi guztien artean, badira bi, beren kabuz, aipatutakoa bezalako organo bat sortzea justifikatuko luketenak:

- a) Alde batetik, Bilboko Udalak jasotako –eta etorkizunean jaso ditzakeen– Europako funtsak Europar Batasuneko Batzordearen eskakizunen arabera kudeatzeko beharra; izan ere, kudeaketa-agintariak iruzur-arriskua kudeatzeko planteamendu proaktiboa, egituratua eta espezifikoa hartzea gomendatzen du Batzordeak. Baliabideak jasotzen dituzten programetako agintari guztiek konpromisoa hartu behar dute iruzurra debekatzeko, eta konpromiso hori erantzukizun handieneko postuetan jarrera egokia hartzarekin hasi behar da. Inori ezin zaio ezkutatu iruzurraren aurkako politika behar bezala inplementatu eta komunikatzeak duen disuasio-indarra. Europar Batasunaren eskakizun eta gomendio horiek bere egin behar ditu Bilboko Udalak, baina ez bakarrik Europako funtsen kudeaketari dagokionez, baita bere baliabide ekonomiko guztien kudeaketari dagokionez ere.
- b) Bestalde, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24 EB zuzentarauen transposizioa egiten baiten Espainiako ordenamendu juridikora, aipatutako ildo beretik jotzen du, 64.1 artikuluan ezartzen baitu kontratazio-organoei neurri egokiak hartu beharko dituztela «iruzurraren, faboritismoaren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko, eta, era berean, lizitazio prozeduretan sor daitezkeen interes-gatazkek era eraginkorrean prebenitu, detektatu eta konpontzeko, lehiaren distortsio oro saihesteko, prozeduraren gardentasuna bermatzeko eta hautagai eta lizitatzailerik guztien arteko tratu berdintasuna ziurtatzeko».

Beraz, bai Europako araudiak bai Estatukoak erakunde publikoetako arduradunen jarrera erabat positiboa eskatzen dute iruzurraren aurkako borrokan, eta, Bilboko Udalaren kasuan, jarrera hori iruzurraren aurkako Batzorde honen bidez gauza liteke. Iruzurraren Aurkako Batzorderen bidez, indarrean dagoen araudi aplikagarria ez betetzea eragin dezaketen portaerak prebenitu, detektatu, zuzendu eta jazarri nahi dira, noizbehinkakoak eta salbuespenekoak izan arren, kalte larria eragiten baitiete portaerok erakundearen interesei, baita gizarteak jasotzen duen erakundearen irudiari ere.

Ildo horretan, «iruzur» terminoaren esanahi literaletik harago, Iruzzurraren Aurkako Batzordeak jokabide proaktiboa izan nahi du portaeron aurrean (irregulartasuna, iruzurra, ustelkeria), duten larritasun maila gorabehera, lehen aipatutako ondorio kaltegarria eragin baitezakete.

Era berean, salaketa-kanal bat gaitzen da, balizko iruzur-arriskua prebenitzeko eta detektatzeko tresna egoki gisa, salaketen tratamendu konfidentziala bermatzen duena. Udaleko langileen eta, oro har, herritarren eskura jarritako bitartekoa izango da, iruzurrezko jokabideen berri duten pertsonak erabili ahal izan dezaten.

I. TITULUA: Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua eta izaera

1.1. Xedapen honen helburua da Bilboko Udalean iruzurraren aurkako prebentzio- eta borroka-neurriak sustatzea. Horretarako, organo tekniko bat sortzen da, independentea eta lantalde gisa artikulatua, eta berariazko eginkizun gisa hartzen du Bilboko Udalaren ardurapeko prozesu guztietan iruzurra prebenitzea, atzematea, zuzentzea eta jazartzea, eta, hala badagokio, dagozkion kautelazko neurriak eta neurri zuzentzaileak hartzea proposatzea.

1.2. Bilboko Udaleko Iruzzurraren aurkako Batzordeak ez du ebazteko eskumenik.

2. artikulua. Izena

Bilboko Udaleko Iruzzurraren aurkako Batzordea modu laburtuan IAB siglekin izendatuko da, eta horrela erreferentziatuko da erregelamendu hau garatzeko eman daitezkeen xedapen guztietan.

3. artikulua. Printzipioak

Iruzzurraren Aurkako Batzordearen jardueren funtsezko printzipioak legezketasuna, objektibotasuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, errugabetasun-presuntzioa eta kontuak ematea dira.

II. TITULUA: Bilboko Udaleko Iruzzurraren aurkako Batzordea

4. artikulua. Osaera eta funtzionamendua

4.1. Hauek osatuko dute Iruzzurraren Aurkako Batzordea: Kontu hartzailea, Udal Aholkularitza Juridikoko Zuzendaritzako titularrak eta Udalbatzako Idazkari Nagusia.

4.2. Iruzuraren Aurkako Batzordeko kideez gain, aztertu beharreko gaien izaeraren arabera, eragindako unitateetako kideak eta gaien adituak direnak aldi baterako sartu ahal izango dira bertan, agindutako zereginak hobeto kudeatzeko helburuarekin.

4.3. Kide anitzeko organo gisa, bere funtzionamenduari dagokionez, Iruzuraren Aurkako Batzordea Bilboko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Erregelamendu Organikoan ezarritakoaren arabera arautuko da, eta, bertan aurreikusi gabeko guztian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako kide anitzeko organoen erregulazioaren arabera.

5. artikulua. *Abstentzia eta ezespena*

Bilboko Udaleko Iruzuraren Aurkako Batzordeko kideei Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako abstentzioari eta ezespenari buruzko arauak aplikatuko zaizkie.

II. TITULUA: Iruzuraren Aurkako Batzordearen funtzioak

6. artikulua. *Jarduera-esparrua*

6.1. Iruzuraren Aurkako Batzordearen funtsezko helburua iruzurraren aurkako neurriak ezartzea da, Bilboko Udalak bere ardurapean dituen prozesu guztietan iruzurra prebenitu, detektatu, zuzendu eta, hala badagokio, jazartzeko aukera emango dutenak. Hori dela eta, Iruzuraren Aurkako Batzordeak planifikatutako jarduerak zein gerora sortutako inguruabarrek eragindako beste batzuk egingo ditu.

6.2. Lehenengoei honako jarduketa hauek dagozkie:

- a) Bilboko Udalaren iruzur-arriskuen mapa egitea.
- b) Iruzuraren ondorioei buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea.
- c) Iruzur-arriskuaren urteko ebaluazioa egitea.
- d) Urteko autoebaluazioaren emaitza kontuan izanik egokitzat jotako neurriak proposatzea Bilboko Udaleko gobernu-organoei.

6.3. Iruzuraren Aurkako Batzordearen planifikatu gabeko jarduerak iruzur-arriskuak sortutako bat-bateko kudeaketa behar puntualak dira.

III. TITULUA: Prozedura

7. artikulua. *Hasiera*

7.1 Iruzuraren Aurkako Batzordearen planifikatu gabeko jarduketak ofizioz edo salaketatik aurrera hasiko dira.

7.2 Planifikatu gabeko jarduketak ofizioz hasiko dira, baldin eta, bere berariazko eginkizunetan diharduela, Iruzuraren Aurkako Batzordeko kideren batek iruzurrezko jarduerak izan daitezkeen gertaeren berri badu. Kasu horretan, Iruzuraren Aurkako Batzordeko lehendakariari eta idazkariari jakinaraziko dio, gertaera azter dezan.

7.3. Jarduketak salaketetatik abiatzea posible izan dadin, kanal elektronikoko espezifikoko bat diseinatuko da, iruzurrezko jarduerak eragin ditzaketen gertaerak ezagutu ahal izateko.

7.4. Salaketa izapidetzeko onartuko ez balitz, eskatutako baldintzak ez betetzeagatik edo planteatutakoa Batzorde honen jarduera-eremukoa ez dela agerikoa izateagatik, ezezkoa arrazoitu egin beharko da, eta dokumentazioa edo salaketa itzuli eta artxibatu egin beharko da.

8. artikulua. *Prozeduraren instrukzioa*

8.1. Iruzuraren Aurkako Batzordeak egokitzen jotzen badu izapidetzea abiatzea, informazioa eskatuko dio salatutako gertakarietan inplikaturako organo, unitate edo pertsonari, eta beharrezko hasierako informazioa bilduko du kasuaren lehen balorazioa egin ahal izateko, bai eta kasurako interesgarriak izan daitezkeen aurrekari edo adierazleena ere, betiere, isilpeko informazio jakinek izan ditzaketen mugekin.

8.2. Iruzuraren Aurkako Batzordeak beharrezkotzat jotzen badu, kasuari buruzko aholkularitza jaso ahal izango du, barne hartuta barneko edo kanpoko zerbitzu espezializatueta jotzeko balizko beharra.

8.3. Informazioa biltzeko prozesua ahalik eta azkarren, konfidentzialtasunez, isilpean eta inplikaturako pertsona guztien parte-hartzearekin garatu beharko da, eta beharrezkotzat jo ahal izango da langileak, lekukoak edo intereseko beste langile batzuk elkarrizketatzea, halakorik balego. Nolanahi ere, salaketari buruzko ikerketa alderdi bakoitzaren eskubideak une oro errespetatuz egin behar da.

8.4. Ikerketa eta egitateen egiaztapena amaitzean, Iruzuraren Aurkako Batzordeak, ahalik eta lasterren, balorazio-txosten bat egingo du ondorioak eta proposamenak jasoz. Txosten hori agintari eskudunei helaraziko die, egindako jarduketekin batera.

9. artikulua. *Konfidentzialtasunaren bermea*

9.1. Informazioa jakinarazten duen pertsonak berariaz kontrakoa eskatzen duenean izan ezik, erabateko konfidentzialtasuna gordeko da bere nortasunari dagokionez, eta, beraz, ez zaio inori jakinaraziko.

9.2. Horretarako, Iruzuraren Aurkako Batzordeak egiten dituen komunikazio, egiaztapen-jarduera edo dokumentazio-eskaera guztietan, ez dira jasoko informazioa igorri duen

pertsonaren nortasunari buruzko datuak, ez eta erabat edo partzialki pertsona hori identifikatzera eraman dezakeen beste edozein datu ere.

9.3. Era berean, Iruzuraren Aurkako Batzordeak jarduketak beste organo batzuei helarazi behar badizkie, organo horiek dagozkien prozedurak izapidetu ditzaten, aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaio beste organo horiei igortzen zaien dokumentazioari, salbu eta organo jurisdikzionalak edo Ministerio Fiskalaren organoak direnean eta prozedura judiziala arautzen duen araudiak besterik eskatzen duenean. Azken kasu horretan, informatzailearen nortasuna ezinbestekoa den pertsona edo organoei soilik jakinaraziko zaie.

10. artikulua. *Laguntzeko betebeharra*

Bilboko Udala osatzen duten organo eta erakunde guztiek, indarrean dagoen legeriak adierazitako mugekin, Iruzuraren Aurkako Batzordearekin lankidetzan aritzeko betebeharra dute, esleituta dituen eginkizunak betetzeko beharrezkoa den neurrian.

11. artikulua. *Batzordearen jardueraren emaitzak*

11.1. Iruzuraren Aurkako Batzordeak planifikatutako jarduerak gauzatzeak Bilboko Udalaren arriskuen mapa eta iruzur-arriskuaren urteko memoria eguneratzea ekarriko du. Bi dokumentu horiek urtebeteko epean aurkeztu behar dira, arau hau onartzen denetik zenbatzen hasita, eta urte natural bakoitzaren amaieran eguneratuko dira.

11.2. Ebazteko ahalmenik ez dutenez, Iruzuraren Aurkako Batzordeak garatzen dituen jarduketa guztiak, hala badagokio, organo edo pertsona eskudunei dagozkien ebazpen-proposamenekin amaituko dira.

5. ERANSKINA

ADIERAZLEEN KATALOGOA (BANDERA GORRIAK)

Bandera gorriak balizko iruzurraren alarma-seinaleak, pistak edo zantzuak dira. Bandera gorri bat izateak ez du nahitaz esan nahi iruzurra dagoenik, baina bai jarduera-eremu jakin batek arreta gehigarria behar duela, iruzur potentzial bat baztertzeko edo baieztatzeko.

Funtsen Koordinazio Batzordeak (COCOF) Europako Eskualde Garapenerako Funtsarentzat, Europako Gizarte Funtsarentzat eta Kohesio Funtsentzat egindako iruzur-adierazleei buruzko informazio-oharra erreferentziatza hartuta, jarraian, bandera gorrien adibideen zerrenda ez-zehatza egiten da, iruzurrezkoak izan daitezkeen praktiken tipologiaren arabera sailkatuta.

1. IRUZURRA KONTRATUETAN ETA KONTRATAZIO PUBLIKOAN

1.1. Ustelkeria, eroskeria eta legez kanpoko komisioak

Deskribapena: Eroskeria eta legez kanpoko komisioa «baliozko gauzaren» bat ematean edo jasotzean datza, administrazio-egintza batean edo enpresa-erabaki batean eragiteko.

Iruzurraren adierazleak:

- Gizarte-harreman estua dago enplegatu kontratatzaile baten eta zerbitzu-emaile edo hornitzaile baten artean.
- Enplegatu kontratatzailearen ondarea azalpenik gabe edo bat-batean handitzen da.
- Enplegatu kontratatzaileak kanpoko negozio ezkutu bat du.
- Kontratistak legez kanpoko komisioak ordaintzeko ospea du sektorean.
- Agiririk gabeko aldaketak edo maiz gertatzen diren aldaketak izaten dira kontratuetan, kontratuon balioa handituz.
- Langile kontratatzaileak uko egiten dio kontratazio publikoarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeko aukerari.
- Langile kontratatzaileak ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.

1.2. Interes-gatazka

Deskribapena: Kontratista den erakundeko langile batek kontratu batean ezkutuko finantza-interesen bat duenean, interes-gatazka sortzen da.

Iruzurraren adierazleak:

- Kontratista jakin batek azaldu gabeko edo ohiz kanpoko faboritismoa jasotzen du. Etengabe onartzen dira lan garestiak, kalitate eskasekoak, eta abar.
- Langile kontratatzaileak ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.
- Langile kontratatzaileak uko egiten dio kontratazio publikoarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeko aukerari.
- Badirudi enplegatu kontratatzaileak aparteko negozio bat zuzentzen duela edo konkurtsoa egin dezakeen sozietate batean lan egiten duten senideak dituela.

- Kontratazioaz arduratzen den enplegatu baten eta zerbitzu edo produktuen hornitzaile baten arteko sozializazioa.
- Kontratazioaz arduratzen den enplegatuaren aberastasun edo bizi-mailaren igoera ulertezina edo bat-batekoa.
- Lizitazioaren dokumentuak idazteaz arduratzen den pertsonak edo goi-mailako funtzionario batek kanpoko enpresa bat kontratatu nahi du dokumentazioa idazten laguntzeko, beharrezkoa ez bada ere.
- Prozedura negoziatu bat aukeratzen da, nahiz eta prozedura ireki bat egon daitekeen.
- Kontratazio-organoko langile batek lehiaketan parte har dezakeen enpresa batentzat lan egon du, justu kontratazio-organon sartu aurretik.

1.3. Lizitzaile baten aldeko zehaztapenak eta baldintza-agiriak

Deskribapena: Baldintza-agirik lizitzaile jakin baten kualifikazioetara egokitutako zehaztapenak dituzte, edo lizitzaile bakar batek bete ditzakeenak.

Iruzuraren adierazleak:

- Eskaintza bakarra aurkeztea edo lizitaziorako aukera ematen duten proposamenen kopurua oso txikia izatea.
- Prozeduraren agiri gidarien eta kontratista irabazlearen produktu edo zerbitzuen arteko aparteko antzekotasuna.
- Beste lizitzaile batzuen kexak.
- Aurreko antzeko prozeduretan onartutakoak baino preskripzio murriztaileagoak edo orokorragoak dituzten baldintza-agiriak.
- Ezohiko klausulak edo arrazoizkoak ez diren klausulak dituzten baldintza-agiriak.
- Hornitzaile berari esleipen asko egitea.
- Kontratzaileen eta lizitzaile batzuen artean harreman pertsonalak egotea.
- Botere esleiztaileak marka jakin baten produktu bat definitzen du, produktu generiko baten ordez.

1.4. Kolusio-lizitazioak

Deskribapena: Eremu geografiko edo eskualde bateko kontratista batzuek edo industria-sektore jakin batekoek konspiratu egiten dute lehiari aurre egiteko eta prezioak igotzeko, lizitazioko kolusio-mekanismo desberdinen bidez.

Iruzuraren adierazleak:

- Eskaintza irabazlea handiegia da aurreikusitako kostuekin, prezio publikoen zerrendekin, industriako obra edo zerbitzu antzekoekin edo batezbestekoekin, edo merkatuko erreferentziatzko prezioekin alderatuta.
- Lizitzaile guztiek prezio altuak eskaintzen dituzte etengabe.
- Eskaintzen prezioak bat-batean jaisten dira lizitzaile berriek prozeduran parte hartzen dutenean.
